

nikus
ker.

UNIBERTSITATEKO PANELA
MUSIKA, IRRATIA ETA PODCASTAK
2023-2024

50. TXOSTENA. 2024KO APIRILA



AURKIBIDEA

IKUSIKER	2
1. FITXA TEKNIKOA.....	3
2. EMAITZAK	4
INTERNETEN / SARE SOZIALETAN IKUSITAKO AZKEN IKUS-ENTZUNEZKOA.....	4
TELEBISTAN IKUSITAKO AZKEN PROGRAMA	8
MUSIKARI BURUZKO GALDERAK	12
IRRATIARI BURUZKO GALDERAK.....	24
PODCAST-EI BURUZKO GALDERAK	28
LABURREAN.....	38

IKUSIKER

Gazteek ikus-entzunezkoak kontsumitzeko eta Informazio eta Komunikazio Teknologiak (IKT) erabiltzeko ohiturak, moduak eta joerak aztertzen ditu IKUSIKER Ikus-entzunezkoen Behategiak. 2018/2019 ikasturtean sortu zen eta gaur egun NOR Ikerketa Taldeaz gain EITBk, Tabakalerak eta Kulturaren Euskal Behatokiak osatzen dute IKUSIKER Behategia.



UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea

Sarriena auzoa z/g, 48940 Leioa (Bizkaia)

+34 747 414 355

ikusiker@ehu.eus



1. FITXA TEKNIKOA

2023-2024ko ikasturtean, IKUSIKERren Unibertsitateko panelean bat egiten dute Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko (UPNA/NUP) bi mila eta zortziehun ikasle pasatxok. Laginean lurralde, jakintza-arlo, fakultate eta ikasketa-maila desberdinetako gazteak daude. Landa-lanari dagokionez, ikasturtearen hasieran aurrez aurre ikasgeletan betetzen dute lehen inkesta eta, hortik aurrera, panelean parte hartzeko baiezkoa ematen duten ikasleei Whatsappez bidaltzen zaizkie hurrengoko zazpi galdetegiak, hilean behingo maiztasunarekin.

2023-2024 ikasturteko IKUSIKERren Unibertsitateko panela, UPV/EHUko eta UPNA/NUPEko ikasle guztien errepresentagarri da. Unibertso horren kopurua lortzeko, laginaren datuen gaineko ponderazioa egin da, eta horretarako, aldagai hauek erabili dira: sexua eta unibertsitatea, probintzia, ikasketa eremua, eta ikasketa maila.

Txosten honetan aurkitu daitezke 2024ko otsailaren 11tik 18ra bitartean, musika, irratia eta podcastei buruz egindako inkestaren emaitzak. Guztira 1929 ikasleen erantzun baliagarri jaso dira.

Dokumentuaren hasieran, gazteek Interneten eta telebistan ikusitako azken edukiari buruzko informazioa biltzen da. Ondoren, musika, irratia eta podcasten inguruan, erabiltzaile modura ikasleek dituzten kontsumoen azterketa egin da.

2. EMAITZAK

INTERNETEN / SARE SOZIALETAN IKUSITAKO AZKEN IKUS-ENTZUNEZKOA

Lehenengo eta behin, interneten edo sare sozialetan ikusi duten azken edukia zein izan den jakin nahi izan da. Galdera honek, bat-batean gogora datorzkien ikus-entzunezko edukiak (*top-of-mind*) zeintzuk diren argitzen du.


Hurrengo hitz-lainoak, UPV/EHUko eta UPNA/NUPeko gazteek interneten azkenengoz ikusitako eduki aipatuena biltzen ditu.

1. Irudia -Interneten edo sare sozialetan ikusitako azken edukia.




Interneten edo sare sozialetan ikusitako azken eduki horri, gehienek 15 minutu baino gutxiago eskaini dizkiote. Oro har, ordu bete azpiko tartekak izan dira aipatuena. 0 eta 15 minutu artean ibili dira inkestatuen % 41 ikus-entzunezko horri begira, eta ordu erdi eta ordubete bitartean % 22. Ordu batetik gorako kontsumoetan ikasleen % 18 pilatu da.

2. Irudia- Zenbat denboraz ikusi duten Interneteko edo sare sozialetako azken edukia.




Unibertsitateko panela osatzen duten gazteen hamarretik zazpik baino gehiagok, etxean ikusi dute interneteko azken eduki hori (% 76). Hurrengo tokirik aipatuena, Unibertsitatea izan da (% 9), eta ondoren, garraio publikoa (% 8).

3. Irudia- Zein lekutan ikusi duten Interneteko edo sare sozialetako azken edukia.



Azken eduki horren kontsumoa, YouTube eta Instagramen pilatu da, ikasleen hamarretik bosten kasuan. Netflix plataforma izan da ondoren aipatuena, baina lehenengo bi aukeratuenen datutik oso urruti (% 11). TikTok izan da jarraian gazte gehienek interneteko azken ikustaldirako erabili duten sare soziala. Google bilatzailean % 4k ikusi du interneteko azken edukia, eta “beste bat” aukera horretan, Mitele, Atresplayer eta RTV Play aplikazioak aipatu dira gehien.


4. Irudia- Zein plataformatan ikusi dute Interneteko edo sare sozialetako azken edukia



Sexuaren araberako azterketak erakusten du, azken ikustaldi horretan, neskek Instagramen pilatu direla bereziki, aldiz, mutilak YouTube aukeratu dute nagusiki.


Beheko grafikoak ere erakusten du, internet edo sare sozialetako azken edukia ikusteko neska gehiago batu dela TikTokera. Twitter, mutil gehiagok erabili du, eta era berean, gizonezkoak izan dira sareko azken kontsumoa Twitch plataforman gehien egin dutenak

5. Irudia- Zein plataformatan ikusi dute Interneteko edo sare sozialetako azken edukia, sexuaren arabera.



Gaztelaniazko edukiak ikusi dituzte gehienek azken ikustaldian (% 73). Ingelesezko ikus-entzunezkoak izan dira jarraian aipatuenak, baina datu askoz txikiagoan (% 21). Euskarazko edukiak ikasleen % 4k ikusi ditu.


6. Irudia- Zein hizkuntzan ikusi duten Interneteko edo sare sozialetako azken edukia.



TELEBISTAN IKUSITAKO AZKEN IKUS-ENTZUNEZKOA


Jarraian, unibertsitariak telebistan ikusitako azken edukiak zeintzuk izan diren jakin nahi izan da. Galdera ireki formatuan, ikasle bakoitzak idatzita utzi du ikus-entzunezko hori zein izan den. Hurrengo hitz-lainoak, unibertsitariak gehien aipaturako edukiak biltzen ditu.

7. Irudia -Telebistan ikusitako azken edukia




Ordubete azpiko tartetean aritu dira gehienak telebistako eduki hori ikusten. Ikasleen % 27k, ordu erdiko tartea eskaini dio, % 24k 15 minutu artekoa, eta ehuneko hamazazpik 15 minututik beherakoa. Ordu bat eta bi orduko mugan ibili dira gazteen % 32.

8. Irudia- Zenbat denboraz ikusi duten telebistako azken edukia.




Panelkideei proposatu zaien zerrendatik kanpo kokatu dute % 20k telebistako azken edukiaren kanala. “Beste bat” aukera horretan gehienek plataforma digitalak aipatu dituzte, eta horrek agerian uzten du telebista hitzaren esanahia bera, aldatuz doala gazteen artean. Baina IKUSIKER behategiak proposatutako zerrendatik kanpo dauden beste kanal batzuk ere aipatu ditzuzte ikasleek “beste bat” aukera horretan; Televisión Españolaren 24 horas, NOVA eta DMAX izan dira errepikatuenak. Ondoren, TELE5 izan da ikuslerik gehien batu dituen (% 16). Euskal telebistak ikusle gehiago bildu ditu azken ikustaldi horretan gaztelaniazko kanalean (% 13), euskarazkoan baino (% 7). LA1n ikusitu dute % 8k telebistako azken edukia, eta % 7k, Antena 3n.

9. Irudia- Zein telebista kanaletan ikusi duten azken edukia.




Sexuaren araberako azterketak erakusten du, bereziki mutilak kokatu direla “beste bat” aukera horretan, neskekiko 4 puntuko aldearekin. ETB2 izan da gizonezko gehiegi batu dituen bigarren kanal aipatuena, eta ondoren, datu oso antzekoarekin, TELE5. Emakumezkoen kasuan, TELE5en kokatu dute gehienek telebistako azken ikustaldia (% 21). Jarraian, “beste bat” aukeran bildu da neska gehien (% 18), eta segidan, Euskal Telebistako bigarren kanalean (% 14).

10. Irudia- Zein telebista kanaletan ikusi duten azken edukia, sexuaren arabera.



Hizkuntzari dagokionez, gaztelaniazko edukiak izan dira telebistako azken ikustaldi horretan nagusi. Euskarazko edukiak izan dira ondoren aipatuena % 6ko datuarekin. Sareko azken ikustaldian ingelesak izan duen datuarekin alderatuz, telebistako azken ikustaldian, hizkuntza horren pisuak ez du % 1 gainditzen.

11. Irudia- Telebistan ikusitako azken edukiaren hizkuntza.




MUSIKA

Musikak berebiziko garrantzia du identitate sozialaren eraketan, bereziki gazteen garapenaren funtsezko etapa honetan. Musika-genero espezifikoak, artistak edo zenbait musika-mugimendurekin lotutako bizimodua aukeratzeak, lagundu egiten die beraien nortasuna eraikitzen eta aintzatespena bilatzen.

Dokumentu honen bigarren atalean, lehendabizi Unibertsitateko gazteek dituzten musika kontsumoetan sakonduko da, eta besteak beste, musika entzuten egunean zenbat denbora ematen duten, zein gailuren bidez kontsumitzen duten edo zein musika estilo nahigo duten galdetu da. Ondoren, unibertsitariak podcastak entzuteko duten ohituretan sakondu da. Datuak, sexuaren, ikasketa-mailaren eta ikasketa-eremuaren arabera ere xehatu dira.


Beheko grafikoak adieratzen duenez, etxea da UPV/EHUko eta UPNA/NUPeke gazte gehinentzat lekurik ohikoena musika entzuteko (% 39). Bigarren lekurik aipatuena garraio publikoa da (% 29). Kalea, unibertsitarien % 16k aukeratu du, eta kotxea % 11k. "Beste bat" aukera horretan, gehienek gimnasioa aipatu dute. Soilik % 1ek adierazi du ez duela musika entzuteko ohiturarik.

12. Irudia- Musika non entzuten duten




Sexuaren arabera azterketak berretsi egiten du etxearen lehen aukera hori batzuen eta besteen kasuan. Garraio publikoa neska gehiagok aukeratu du, aldiz, kotxea aukeran, mutil gehiago pilatu da. Musika entzuten ez dutenen artean, gizonezko gehiago dago.

13. Irudia- Musika non entzuten duten, sexuaren arabera




Ikasketa-mailaren arabera azterketak erakusten du, gazteenak direla bereziki musika etxean entzuten dutenak. Kanpoaldeko eremuetan, garraio publikoan edo kalean bertan, 3. maila edo gehiagoko neska mutil gehiago kokatu da. Gainerako aukeretan, antzeko ehunekoetan kokatu dira ikasleak.

14. Irudia- Musika non entzuten duten, ikasketa-mailaren arabera




Musika entzuteko gailuari dagokionez, hamarretik ia bederatzik mugikorra erabiltzen du. Edukiak nonahi eta noiznahi ikus-entzuteko aparailu multifuntzional honek, oso atzean kokatzen ditu beste gailuen erabilera. Jarraian, baina ehuneko askoz txikiagoarekin, ordenagailua izan da aparailu aipatuena (% 5), eta ondoren, irrati aparailua. Gainerako euskarrien kasuan, datuak ez du % 1 gaingitzen.

15. Irudia- Musika entzuteko gehien erabiltzen duten gailua



Sexuaren araberako azterketak erakusten du, musika entzuteko neskek gehiago darabiltela mugikorra, aldiz, ordenagailu eta irrati aparailu aukeretan, mutil gehiago pilatu da.


16. Irudia- Musika entzuteko erabiltzen duten gailua, sexuaren arabera



IKUSIKER Behategiak Bigarren Hezkuntzan egiten duen landa lanak erakusten du, gazteek ahal duten aldiro musika entzuten dutela, ia noiznahi eta nonahi. Gauzak honela, ohitura hauek unibertsitate garaian mantentzen diren, edo ez jakin nahi izan da.


Eta datuek agerian uzten dute, UPV/EHU eta UPNA/NUPeke ikasleek egunero minutu dezente eskaintzen dizkiotela musikari. Gehienak ordu erdiko mugan kokatu dira (% 32), baina ordubete eta bi ordu artean pilatu dira neska mutilen hamarretik ia hiru (% 29), eta ez dira gutxi, bi ordu eta erdi baino gehiagoz egunero musika entzuten dutenak (% 12).

17. Irudia- Musika zenbat denboraz entzuten duten




Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko alderaketan, batzuk eta besteak ordu erdi arteko mugan kokatu dira oso datu berdintsuan. Musika egunero ordubete baino gehiagoz entzuten dutenen kasuan, mutilak dira gehiago.

18. Irudia - Musika zenbat denboraz entzuten duten, sexuaren arabera



Ikasketa-mailaren arabera egindako azterketak erakusten du ordu erdiko tartea eskaintzen diotela ikasle gehienek egunero musika entzuteari. Era berean, grafikoak argi uzten du, 1. eta 2.mailako gazteak direla ordubeteko muga gainditzen dutenen artean nagusi.

19. Irudia - Musika zenbat denboraz entzuten duten, ikasketa-mailaren arabera




Digitalizazioak ahalbidetu egin du musika nonahi eta noiznahi entzuteko aukera. Zentzu honetan, unibertsitaeriei galdetu zaie, sarean dauden hainbeste aplikazioen artean, zein erabiltzen duten nagusiki musika entzuteko.

Aurreko ikasturtean bezala, Spotifyk lortzen du jarraitzaile gehien, UPV/EHU eta UPNA/NUPeke ikasleen % 82k aukeratuta. *Streaming* bidez musika erreproduzitzeko aplikazioa da Spotify, eta diskoetxe independente eta handietako musika eskaintza zabala eskaintzen du. Dohako aplikazioa da, baina publizitatea ekiditeko aukera ere eskaintzen du ordainpeko zerbitzuaren bitartez.


YouTube da bigarren plataforma aukeratuena musika internet bidez entzuteko (% 12). “Beste bat” aukera horretan, Amerigo, eSound eta Apple Music plataformak izan dira ikasle gehinek aipatu dituztenak.

20. Irudia - Musika internet bidez entzuteko erabiltzen duten aplikazioa




Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko alderaketan, Spotify da nagusi batzuen eta besteen artean, baina nesken kasuan, kontsumoa handiagoa da (% 85 eta % 79, hurrenez hurren). YouTube plataforman, mutilak pilatu dira gehiago, baina nesken datutik ez oso urruti (% 13 eta % 11).

21. Irudia - Musika internet bidez entzuteko erabiltzen duten aplikazioa, sexuaren arabera




Ikasketa-mailaren araberako azterketak, Spotifyn gazteenek egiten duten erabilera nagusia azaltzen du, baina beste mailako ikasleekiko alde handiegirik gabe. YouTube, 3. maila edo gehiagoko neska-mutilak kokatu dira bereziki.

22. Irudia - Musika internet bidez entzuteko erabiltzen duten aplikazioa, ikasketa-mailaren arabera




Ikasleen musika gustuetan sakondu da jarraian, eta jasotako erantzunetatik adierazi daiteke, popa dela UPV/EHUko eta UPNA/NUPeke ikasleek gustukoena (% 30). Pop-Rockak eta reggaetoia ere gazte nahikotxok aukeratu dute (% 22 eta % 19, hurrenez hurren). “Beste bat” aukera horretan, euskal musika, flamenkoa eta *indie* estiloak izan dira aipatuena.

23. Irudia -Musika estilo gustukoena.




Eta beste behin, sexuaren arteko alderaketak desberdintasunak erakusten ditu batzuen eta besteen gustuen artean. Popa da nesken musika estilo gogoena (% 37), baina pop-rockak eta reggaetoiak ere baditu dezente zale emakumezkoen artean. Gizonezkoen kasuan, estilo gehiagotara zabaltzen da beraien kontsumoa. Oso modu berdintsuan entzuten dituzte pop-rocka, popa eta reggaetoia (% 22, % 20 eta % 19) baina rapa, musika elektronikoa eta heavy metala ere ehuneko garrantzitsu batek jarraitzen ditu (% 7, % 6 eta % 4).

24. Irudia -Musika estilo gustukoena, sexuaren arabera



Adinak ezartzen ditu desberdintasun handienak musika estiloari dagokionez. Popa izan da 2. eta 3.maila edo gehiagoko neska mutilen estilo aukeratuena, aldiz, 1. mailako ikasle gehienek reggaetoi-a entzuteko ohitura dutela adierazi dute, adinean nagusiago direnekiko alde handiarekin.


25. Irudia -Musika estilo gustukoena, ikasketa-mailaren arabera



Ikerketaren atal honetan, ikasketa-eremuari ere erreparatu zaio, batzuen eta besteen artean estilori dagokionez desberdintasunik ematen den jakiteko.

Eta grafikoak adierazten duenez, desberdintasunak, izan, badira. Pop-rocka, Zientziak, Arteak eta Zientziak eta Ingenieritza eta Arkitekturako ikasleen musika estilorik gustukoena da. Osasun Zientziak eta Gizarte eta Lege Zientzietako gazteak pop estiloan eta reggaetoi-ian dira nagusi. Arteak eta Giza Zientzietako ikasleen datua, bereziki handia da rapa eta heavy metal estiloen aukeraketan eta elektronika nagusiki, Ingenieritza eta Akitekturako neska mutilen eremua da.

26. Irudia -Musika estilo gustukoena, ikasketa-eremuaren arabera



Hurrengo hitz-lainoak UPV/EHU-ko eta UPNA/NUPe-ko ikasleen musika talde edo artista bakarlari gustukoaren izenak biltzen ditu.

27. Irudia -Musika talde edo bakarlari gustukoena




IRRATIA

Digitalizazioak komunikatzeko, entretenitzeko eta informatzeko moduak eraldatu aurretik, irratia zen musika entzuteko gazte askoren baliabide erabilienetakoa. Baina, gainerako komunikabide tradizioaletan gertatu den legez, irratia kontsumoak ere, sekulako gainbehera izan du. Gauzak honela, unibertsitarien artean, musika entzuteko medio honi ematen dioten erabilgarritasuna aztertu nahi izan da.


Eta grafikoak nahiko argi adieratzen du, irrateria ez dela ohiko bitarteakoa gazteen musika kontsumoan, ikasleen % 33k adierazi bait du ez duela helburu horrekin erabiltzen. Baiezkoan, ikasleen hamarretik sei kokatu da, eta hauen artean, Prisa taldeko Los 40 emisora aukeratu dute % 23k. Euskal Irrati Telebistaren Gaztea emisora izan da ondoren neska mutil gehinen aukera, % 15eko datuarekin. Cadena 100ek lortzen du hirugarren postua (% 9), eta laugarrena “beste bat” aukerak (Loca FM eta Radio 3 emisorak izan dira aipatuena).

28. Irudia -Musika irrati bidez entzuteko erabiltzen duten emisora




Sexuen arteko alderaketak erakusten du mutilen ia erdiak ez duela musikarik entzuten irrati bidez. Emakumezkoen kasuan, gehiago dira baiezkoan kokatu direnak. Era berean, batzuk eta besteak, Los 40 emisora aukeratzen dute musika entzuteko, baina datua bikoitza da nesken kasuan (% 30 eta % 15). EITBko Gazteari dagokionez ere, emakumezko gehiegok aipatu du. Gizonezkoen datua handiagoa da Cadena 100, “beste bat” eta Rock FM emisoraren aukeraketaren kasuan.

29. Irudia - Musika irrati bidez entzuteko erabiltzen duten emisora, sexuaren arabera



Ikasleen adinari erreparatzen badiogu, datuek adieratzen dute adinean nagusiago direnek sahiesten dutela bereziki irratiaren erabilera musika entzuteko. Los 40 gazteenen emisora bezala azaltzen da (1. eta 2. mailako ikasle gehienek aukeratu dute) eta aldiz, Gaztea, 3. maila edo gehiagoko ikasleen lehen aukera izan da.

30. Irudia - Musika irrati bidez entzuteko erabiltzen duten emisora, ikasketa-mailaren arabera




PODCASTAK

Digitalizazioak sakonetik astindu du komunikazioaren mundua, eta horren baitan, audioarekin zerikusia daukaten medioak. Txostenaren azken atal honetan, podcastak entzuteko ohituari buruz 2024ko martxoaren 11ko astean unibertsitarien artean egindako inkestaren emaitzak aztertuko dira. Audio-artxibategiak sortu eta web bidez banatzeko tresnak honek, edukia edozein lekutan eta edozein unetan entzuteko aukera eskaintzen du.

Audio eduki luzeak biltegitratzeko aukera ematen dute podcastek, eta berehalakotasunaren garai hauetan bizi garen heinean, interesgarri suertatzen da jakitea, zenbatero entzuten dituzten.


Jarraian agertzen den grafikoak adierazten duenez, gazteek ez dute podcastak entzuteko ohitura gehiegirik. Audio-artxibo hauen kontsumoa noizbehinkakoa da neska mutilen artean. % 37k ez ditu inoiz entzuten, eta % 27k hilean behin baino ez. Eguneroko maiztasuna, ikasleen % 6k aitortu du.

31. Irudia - Podcastak entzuteko maiztasuna




Sexuaren arabera azterketak erakusten du, biak ala biak, noizbehinkako kontsumoetan mugitzen direla. Podcastak egunero entzuten dituzten ikasleen artean ere, ez da desberdintasun handirik antzematen. Audio-artxibo hauek inoiz kontsumitzen ez dituztenen artean ematen da alderaketarik nabarmenena; bost puntuko aldearekin, emakumezko gehiagok adierazi du ez dituela inoiz entzuten.

32. Irudia - Podcastak entzuteko maiztasuna, sexuaren arabera



Ikasketa-mailaren arabera azterketak adieratzen du adinak ez duela gehiegi baldintzatzen podcastak entzuteko ohitura. Egia da, halaber, 3. maila edo gehiagoko ikasleak nagusi direla maiztasun altuagoetan, baina datua ez da bereziki handiagoa beste mailetakoa neska-mutilekin alderatzen badugu.


33. Irudia - Podcastak entzuteko maiztasuna, ikasketa-mailaren arabera



Podcasten merkatua izugarri hasi da azken urteetan, eta gaur egun, gai eta tematika oso desberdin eta anitzeko podcastak entzuteko aukera dago. Zentzu honetan, unibertsitarien gustuetara hurbilketa bat egin nahi izan da.


Ondorengo grafikoak erakusten duenez, elkarrizketaren formatua lehenesten dute gehienek (% 33), eta gai honek besteekiko ezartzen duen distantzia bereziki handia da. Kirolarekin lotutako espazioek lortzen dute ondoren jarraitzaile gehin, baina ehuneko askoz txikiagoan (% 7). “Beste bat” aukera horretan (% 5), ikasle gehienek autolaguntza eta hazkunde pertsonala lantzen dituzten podcastak aipatu dituzte.

34. Irudia - Podcastetako gairik gustukoena




Eta beste sare sozial edo aplikazioen azterketan gertatu den bezala, gai edo kategoriaren aukeraketan, sexuak oso desberdintasun handiak azalerazten ditu batzuen eta besteen artean. Biek ala biek elkarrizketa formatoa aukeratzen dute, baina datua nabarmen handiagoa da nesken artean, zazpi puntukoa aldearekin. Kirolak jorratzen dituzten podcastak bereziki jarraituak dira mutilen aldetik, baita youtuber, *gamer* eta *vloggerrek* sortutakoak ere. Komedia, meme eta parodiakin lotutako podcastetan, emakumezko gehiago batu da, baita, hazkunde pertsonala eta autolaguntza podcastak aipatuak izan diren “beste bat” aukera horretan ere.

35. Irudia - Podcastetako gairik gustukoena, sexuaren arabera




Jarraian datorren grafikoan azaleratzen denez, ikasketa-mailaren araberako azterketak ez du desberdintasun nabarmenik adierazten ikasleen artean. Elkarrizketak entzuteko erabiltzen dituzte podcastak gehienek, eta beharbada, kirolarekin lotutakoek ezartzen dute alderik handiena batzuen eta besteen artean. 2. mailako neskamutilak dira gai horri lotutako podcastak gutxien entzuten dituztenak.

36. Irudia -Podcastetako gairik gustukoena, ikasketa-mailaren arabera



Ikasketa-eremuaren araberako azterketak ikasle batzuen eta besteen arteko zenbait desberdintasun islatzen ditu. Elkarrizketak dira gehienek lehen aukera, baina, Zientzietako neska-mutilak izan dira aukera horretan nagusi. Arte eta Giza Zientzietako gazteak kirola, eta albisteak eta politikarekin zerikusia duten audio edukien kontsumoan azaldu dira gainerakoen gainetik, eta Ingenieritza eta Arkitekturako eta Zientzietako ikasleak dira youtuber, *gamer* eta *vloggerrek* sortzen dituzten podcasten jarraitzaile handienak.


37. Irudia - Podcastetako gairik gustukoena, ikasketa-eremuaren arabera




UPV/EHUko eta UPNA/NUPEko unibertsitarien artean podcasten kontsumoa noizbehinkakoa dela ikusi dugu. Ez da beraien ikus-entzunezko formaturik erabiliena, baina baditu bere jarraitzaileak. Horregatik, berauek entzuteko ohitura dutenei, arrazoi zerrenda bat eskaini, eta motibo bakoitzean maiztasuna adierazteko eskatu zaie.

Noizbehinkako kontsumo portaera horren testuinguruan, podcastak “entretentzeko” baliabide modura darabilte hilean behin ikasleen % 23k, eta astean behin baino gehiagotan gazteen % 20k.


38. Irudia -Podcastak entzuteko arrazoiak



Lehen ere ikusi dugu, elkarrizketak direla podcasten kontsumoan kategoriarik aukeratuena, eta zentzu horretan, “gauzak berriak ikasteko” erabiltzen ote dituzten jakin nahi izan da. Grafikoak erakusten du, % 23k, arrazoi horrengatik egiten duela hilean behineko kontsumoa, eta % 26k, astean behin baino gehiagokoa. Ikasleen % 7k ez dituzte podcastak motibo horrengatik entzuten, aldiz, % 8k egunero edo egunean behin baino gehiagotan gauza berriak ikasteko darabilela adierazi du.




Eta elkarrizketa formatoaren gehienen lehen aukera horren argudioari jarraiki, espero zitekeen “aktualitateko kontuen berri izateko” arrazoiak ikasle dezente biltzea, baina grafikoak ez du hori erakusten. Gazteen % 14k dio, inoiz ez dela hori izan podcastak entzuteko motiboa.




Digitalizazioak ahalbidetu duen eramangarritasunaren aukerak, ikus-entzunezko edukien kontsumo ia guztietarako mugikorraren erabilera ekarri du, eta podcasten kasuan ere, aparailu hori da UPV/EHUko eta UPNA/NUPeke ikasleen ia erdiak erabiltzen dutena (% 47). Ordenagailu eramangarria izan da bigarren gailu aipatuena (% 8), eta ondoren, mahaiko ordenagailua (% 4) eta tableta (% 3).

39. Irudia -Podcastak entzuteko gailua




Iraupen luzeko audio edukiak eskaintzen dituzten podcastak entzuteko, adina dena delarik, mugikorra da gailurik aukeratuena. Euskarri tradizionalagoetan, mahaiko ordenagaialuan edo ordenagailu eramangarrian, 3. maila edo gehiagoko ikasleak bildu dira bereziki.

40. Irudia -Podcastak entzuteko gailua, ikasketa-maialaren arabera




Hurrengo hitz lainoan, UPV/EHUko eta UPNA/NUPeke ikasleen podcast gustukoena biltzen dira.

41. Irudia -Podcast gustukoena. Hitz lainoa.



Amaitzeko, podcastei ematen dieten puntuazioa zehazteko eskatu zaie unibetsitariei. Graftaikoak erakusten duenez, gizonezko gehiagok baloratu dituzte podcastak nota hobekoarekin. Batzuetan besteko emaitza, 7,1 izan da, eta hortaz, balorazio baikorra lortzen dute podcastek UPV/EHU eta UPNA/NUPEko gazteen artean.

42. Irudia -Podcasten balorazioa. Datu orokorra eta sexuaren arabera



LABURREAN ESANDA

- Etxea da UPV/EHUko eta UPNA/NUPeke gazte gehinentzat lekurik ohikoena musika entzuteko, eta ondoren garraio publikoa.
- Musika entzuteko gailuari dagokionez, hamarretik ia bederatzik mugikorra erabiltzen du.
- Egunero ordu erdiz entzuten dute musika gehienek, baina ordubete eta bi ordu artean eskaintzen dizkiote neska mutilen hamarretik ia hiruk.
- Musika internet bidez entzuteko, Spotify darabilte ikasleen hamarretik zortzik. YouTube da bigarren plataforma aukeratuena, baina Amerigo, eSound eta Apple Music plataformak ere nahikotan aipatuak dira. Spotify gehiago erabiltzen dute neskek eta YouTube plataforman, mutil gehiago pilatu da. Gazteenak, (1. mailako ikaslek) dira *streaming* plataforma honetako erabiltzaile sutsuenak.
- Irratia ez da ohiko medioa gazteen musika kontsumoan, ikasleen hamarretik seik erabiltzen du. Los 40 emisora izan da aukeratuena, eta jarraian Gaztea
- Popa da UPV/EHUko eta UPNA/NUPeke ikasleek gustukoak duten estiloa, baina pop-rockak eta reggaetoiak ere, jarraitzaile asko dituzte. Popa da nesken musika estilo gogoena. Gizonezkoen kasuan, estilo gehiagotara zabaltzen da beraien kontsumoa eta oso modu berdintsuan entzuten dituzte pop-rocka, po-a eta reggaetoi baina rapa, musika elektronikoa eta heavy metala ere, mutilen ehuneko garrantzitsu batek jarraitzen ditu.
- UPV/EHUko eta UPNA/NUPeke gazteek ez dute podcastak entzuteko ohitura gehiegirik. Audio-artxibo hauen kontsumoa noizbehinkakoa da neska-mutilen artean.
- Elkarrizketaren formatua lehenesten dute gehienek podcastak entzuterakoan. Kirolarekin lotutako espazioek lortzen dute ondoren jarraitzaile gehin, baina portzentaje askoz txikiagoan.
- Podcastak entzuteko arrazoi nagusien artean, entretenitzea da ikasle gehienek aipatu dutena eta, ondoren, gauzak berriak ikastea.
- Podcastei ematen dieten batz besteko puntuazioa 5 da, eta hortaz, balorazio baikorra lortzen dute UPV/EHU eta UPNA/NUPeke gazteen artean.